

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

PROPOSAMENA

Ekialdeko Barrutiaren mugakide diren herriekiko gaietarako batzorde ez iraunkorra sortzekoa.

EH Bildu udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikulua oinarri hartuta, Ekialdeko Barrutiaren mugakide diren herriekiko gaietarako BATZORDE EZ IRAUNKORRA sortzeko PROPOSAMEN hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Ekialdeko Barrutiak muga egiten du Astigarraga, Errenteria eta Pasaia udalerriekin. Muga horietan Ekialdeko Barrutiak hainbat auzo ditu, tamaina, gertutasun eta ezaugarri ezberdinak dituztenak. Eremu horietako bizilagunek elkarbizitza eta harreman sare sakonak dituzte mugakide diren herriekin, eta beharrak eta irtenbideak ere partekatzen dituzte. Hainbat herritan kokatuta egoteak ere disfunczioak, nahasteak eta arazoak eragiten ditu sarri, atez ate bizi arren.

Horien adibide argiena Azkuene, Eskalantegi eta Molinao biziguneak dira. Eremu horietako bizilagunek eguneroko erosketak, bizitza soziala edota zerbitzu publikoen premiak eta irtenbideak partekatzen dituzte pasaitarrekin; gauza bera esan daiteke Antondegi, Lau Haizeta eta Bizarain mendiaren magaletako bizilagunen inguruan ere, landa eremuak izanik, ezaugarri, premia eta harreman ezberdinak dituzten arren. Covid-19ak eragindako pandemiak ere areagotu egin ditu aipatu disfunczio horiek, hala nola, etxeratzeko agindu ezberdinen edota konfinamendu perimetralen ondorioz.

Bestalde, mugakideak diren eremuok egiturazko eta estrategikoak diren egitasmoak partekatzen dituzte. Esanguratsuena Pasaia portua da, urtetan badia inguruko familien ogibidea eta diru iturri nagusia izan baita. Era berean, landa eremuak daude inguru horietan, baina eremu jendetsu honen aisiarako eta osasunerako baliabide gisa baino, hirigintza eta azpiegitura egitasmoetarako hartua izaten ari da.

EH Bilduren ustez, beharrezkoa da Udalak aztertzea Ekialdeko Barrutiak mugakide dituen herriekin partekatzen dituen harremanak, arazoak eta premiak, irtenbideak adostuak izan daitezzen mugakide diren udalekin, gai horien inguruan hitz egiteko garaian. Horregatik, EH Bildu taldeak EKIALDEKO BARRUTIAREN MUGAKIDE DIREN HERRIEKIKO GAIETARAKO BATZORDE EZ IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMEN hau egiten du.

- **Helburua:** Ekialdeko Barrutiak mugakide dituen herriekin partekatzen dituen harremanak, arazoak eta premiak zerrendatzea eta aztertzea, irtenbideak adostea eta horien ezarpenari jarraipena egitea.

- **Osaera:** Ekialdeko Barrutiko ordezkariak (gehienez udal taldeen ordezkariak adina), zeharkako zerbitzuak koordinatzeko zuzendaria eta udal talde bakoitzeko kide bat. Botoa haztatua izango da (zuzendariak ez du bozkarik izango).

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

- **Iraupena:** bi urte.

- **Bileren araubidea:** hiru hilean behin egingo da.

Donostia, 2021eko apirilaren 9an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea